

# berria

GEHIGARRI  
BEREZIA

Larunbata,  
2020ko abuztuaren 1a

[ 1942  
2020 ]

## JOAN MARI TORREALDAI

Mendeetako, latza  
gure ondarea  
erauzi eta arrastan  
daraman marea.  
Langile nekaezinak  
lan amaigabea,  
alerik ale bildu  
zenuen area.

Euskara izan zedin  
jakintzaren mendu  
eta euskara jakintza  
eta pentsamendu.  
Ekinean egina  
denak jakiten du  
nola bilakatzen den  
area zimendu:

Hezurdura bat hitzen  
mami beztuari  
eta arnasbideak  
arnas estuari

Euskararen begiak  
mundu arrotzari,  
letrak eta papera  
gure ahotsari.

Eraikiaz erantzun  
zenion bortxari.

Ta ankerrek ta koldarrek  
ohi duten moduan,  
gauean, bizkarretik  
eta desorduan,  
gizon jakintsu baten  
bizitza onduan,  
kolperik bortitzena  
heldu zen orduan.

Mina muinean sartu  
zizuten unetik  
ere eman diguzu  
ikaskizunetik.  
Zenbat jakintza doan  
zure hutsunetik...  
jarraituko ahal dugu  
utzi duzunetik!

**Maialen Lujanbio**



Arantzazu ipar, Jakin ekialde, 'Egunkaria' hego, Euskaltzaindia mendebal. Euskalgintzan ekintzaile, euskal kulturaren erreferentzia. 60 urteko bide oparoa. Joan Mari Torreal dai hil da. Bidegabekeriaren ikur izan da: minbiziak eraman du, 'Egunkaria' itxi ostean jasandako torturekin lotu zuen minbiziak.

# Intelektual bat Euskal Herriari

## Garikoitz Goikoetxea

**H**abezen, lau zutabe sendotan jositako habea: Arantzazu, Jakin, *Euskaldun Egunkaria* eta Euskaltzaindia. Habetan bat galdu du euskarak, eta euskal kulturak, eta Euskal Herriak: Joan Mari Torreal dai hil da. 77 urte zeuzkan. 60 urteko ibilbidea egin du gogotan eta ekintzan. Euskal kulturako intelektual handietako bat izan baita Torreal dai, eta euskalgintzako ekintzailea. 60 urteko ibilia egin du, baina haren heriotza ez da bidearen azkena: habe gainean jarraituko dute Torreal dairen altoan sortutako eta hazitako egitasmoek. Besteak beste, BERRIA euskarazko kazeta nazionalak, *Egunkaria*-ren oinordekoak.

Minbiziarekin egin ditu azken urteak: 2015ean jakinarazi zuen hezur muineko minbizi atzeman ziotela, eta *Egunkaria* itxi ondoren atxilotuta egon zeneko torturekin lotu zuen. «Esaten nuen hezur muineraino min egin zidatela, eta hezur muinean ager-

**Herri ekimena izan du lan esparru, eta benetan sinetsi du: «Daukagun hoberentxoena herri ekimenari zor diogu»**

tu zitzaidan minbizi». Osasun gorabehera bat baino gehiago izan du urteotan. Azken asteetan okerrera egin du osasunak, eta atzo hil zen, etxean, senideak eta adiskide gertukoak agurturik.

Usurbil (Gipuzkoa) izan du bizilekua urte hauetan, eta hango beilatokian jarriko dute hil kaperara gaur: 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

Bizkaitarra zen sortzez Torreal dai, Forukoa. Baina haren ibilbidean giltzarria izan da beste leku bat ere: «Esan liteke biologikoki Foruan jaio nintzela, eta kulturalki, Arantzazun». 1954an joan zen Oñatiko santutegira (Gipuzkoa), seminariora. 12 urte zituen. «Seminarioak ziren euskal unibertsitateak ez zegoen herri honetako unibertsitateak». Zazpi urte egin zituen Arantzazun. Borborka zegoen santutegia: basilika berri eta berritzailea eraikitzen ari ziren, intelektual ugariaren bilgune zen, eta Euskaltzaindiak han egin zituen batzar erabakigarriak –tar tean, 1968koa, euskara batuaren sorrerakoa—. Euskal Herriko begiak ireki zizkion Arantzazuk Torreal dairi, 2016an BERRIAN kon tatu zuenez: «Txokokerien gaine tik Euskal Herria osotasune an ulertzeko modu bat zordiot Arantzazuri».

## 'Jakin'-en hasi

Euskal kultur gintzan murgiltzeko abiapuntu ere izan zitzaion Arantzazu. Torreal dai semina riora iritsi eta gutxi ra sortu zuten *Jakin* aldizkaria, 1956an; ikasleek egiten zu ten. Torreal dai ge rora sartu zen talde an, 1963an. Ateuga ri ireki zion: «Irtee ra handia izan zen». Baina zaila zen egoe ra, zentsuragatik. To rreal daisartzean hala zegoen; 1964an bai mendu zuten, eta ber rriz isildu 1969an. To rreal dai zen zuzendari. Zentsura izan zuen az tergaietako bat gerora.

Jakin taldeko kide gisa, euskara batuaren bultzatzaile nagusietako bat izan zen, eta hala jarraitu du hamarkada hauetan. 1975ean euskaltzain urgazle izendatu zu ten, eta oso 2007an. Orain bi urte, 1968ko bilkuraren urteurrenean, hark irakurri zuen *Euskara batuaren adierazpena*, Arantzazun.

*Jakin* isilarazirik, ikasketak sa kontzera jo zuen 1969an Torreal daik. Tolosara (Okzitania) joan zen, Manex Erdozaintzi-Etxartekin –frantziskotarrazen hura ere–. Teo logian lizentziatu zen. Parisera joan zen gero, Soziologia ikastera, 68ko Maiatza igaro berri zelarik. «Munduaren erdigunea iruditu zitzaidan, talaia pa regabea».



Frankismoaren hondarrak ziren, eta indartzen ari zen euskara eta euskal kultura berpizteko mugimendua. 1975ean itzuli zen Torreal dai Paristik, eta parte hartu zuen Elkar argitaletxea sortzen eta *Jakin* martxan jartzen. 1977an lortu zuten aldizkaria kaleratzeko zuzendari, eta titulurik ez. Eta legez titulua behar». Informazio

zientzietan lizentziatu zen EHU Euskal Herriko Unibertsitatean, tesina honekin: *ETB eta euskara*.

### Lana eta herri ekimena

1990. urtea giltzarri izan zen Torreal dairen bizitza profesionalean, bi mugarri handirekin. Bat: *Euskaldunon Egunkaria* sortu zuten, Torreal dai bera Editorial Kontseiluko buru zela. Eta bi: *Jakin* frantziskotarren babespetik atera zuten, eta beregain bilhurtu.

Garai hartan sartu zen *Jakin*-en Arantxa Begiristain, idazkari gisa. Lan eta ahalegin handiko urteak izan ziren: «Orduak eta orduak egiten genituen, baina neke sentsazioirik gabe». Hala du gogoan Torreal dai. «Nekaezina zen: egin, egin eta egin. Exijentea zen bere buruarekin: gauzak ondo egitea gustatzen zitzaion». 30 urte egin dituzte elkarrekin. Lanari ematen zion balioa maiz nabarmendu zuen Torreal dai jendaurrean: «Lanak asko dezake, proiektuan sinetsi eta ilusioz jardunez gero».

Mikel Arrizabalaga adiskideak ere gogoan du nolako kementa zuten lanerako; elkarrekin urteak egin dituzte mendian. «Donejakue bidea hamabost egunean egin genuen, eta gertatzen esaten zidan: 'Ni neurean sartuko nauk'. Eta kontzentratu egiten zen lanean».

Langilea zen, baina ez bakarrik aritzea. Lan kolektiboan sinesten zuten, taldean.


Urteotan sariak jaso dituen beti nabarmendu du hori. Hala esan zuen, adibidez, 2016an, Manuel Lekuona saria jasotzean: «Ipotx bat naiz erraldoien bizkar gainean igoa. Erraldoi askori zor diot zuten aurrean egotea. Nire obra zerbait bada, obra kolektiboa da».

Bazuen beste uste sendo bat ere: herri ekimena ardatz gisa ikusten zuten, ez gotea instituzioek egin zain. Hala esan zuen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren aurkezpenean, 2016an: «Herri ekimenak ikaragarri dezake, kudeaketa on batez lagundurik. Daukagun hobere txoena herri ekimenari zor diogu». Horrekin lotuta, haren «militantzia» gorai patu du Arrizabalagak: «Euskal Herriarekin, euskararekin eta euskal kulturarekin zeukan konpromisoa. Horien maitalea zen. Oso barrutik bizi zituen».

### Amesgaiztoa

2003an kolpea iritsi zen. *Euskaldunon Egunkaria* indarrez itxi zuten Guardia Zibilak, eta atxilotuta eraman zuten Torreal dai. Bost urtean isilik izan zuen torturatu egin zutela. Zauri sakona ireki zioten. Mendian ere nabari zitzaion. «*Egunkaria*rena gertatu arte, beti hanka bolak ikusten nizkion, beti josten zen aurretik; ordutik, atzetik. Ez zeukan horrenbeste indar, burua beste nonbait zeukan...». Min pertsonala zen, eta profesionala. «Sarraskia» egin zitela salatu zuen:

+  
**GUTUNA**  
Manex Torreal dai Gorriti



Joan Mari Torreal dairen semea

## Ez adiorik, aita

**K**aixo, aita. Goizeko bostak dira, orri txuri bat dut aurrean, eta milioika ideia buruan bueltaka. Zuk oso ondo ezagutzen duzun sentsazioa da hau.

Ni, berriz, zu niretzat zaren guztia orrialde honetan laburbildu nahian nabil, idazteko abilezia gutxi eta malkoei ezin eutsiz.

Esan izan didate, *Nolako zura, halako ezpala* esaerari helduz, nola den posible idazlearen semea ez gustatzea idaztea edo irakurtzea... eta horrela da, bai. Baina orain, gure bizitzako memento zailenetako batean, hemen nago, boligrafo eskuan, zu hainbestetan egon zaren moduan.

Maite zaitugu, aita, joan zaiten harro. Aita izeneko mendi honetan gailurrera iritsi zara.

Badira urte batzuk, gaitza dela eta, ezin izan dugula mendira joan, ezin izan dugula gailurra konpartitu, baina jakin ez dela mendirik egon eta ez dela egongo zutaz gogoratuko ez naizenik. Asko irakatsi didazu mendiaz, zure bizitzaren parte zen mendia, eta niri afizio hori maitatzen irakatsi didazu. Gogoan duzu Andatzara ilunpean joan eta ardi bazuaren begiek eman ziguten sustoa? Ez dut inoiz ahaztuko.

Ez dut ahaztuko Ezina dena Ekin ez Egin daitekeen edo aldapa

handiak pauso txikiak eta asko emanez jaisten diren ere. Gailurraren satisfazioa lortzeko lan egiten irakatsi didazu; mendiko lezioak ikasten nabilelakoan bizitzan ibiltzen ikasi dut. Mila esker, aita.

Badakizu, hala ere, mendi guztiak ez direla xamurrak izan; azaldu dira otsoak ere. Baina borrokatu gara, beti borrokatu gara, zuk esaten zenidan bezala, «Torreal dai batek ez du inoiz amore ematen», eta erakutsi diguzu ongi ezetz!

Eta, malko hauei eutsiz, orriaren amaierara iristen ari naiz, orria amaitzean azken urteetako maratoio honen amaierara iritsiko garen beldur eta penaz. Zoritxarrez, behin baino gehiagotan pentsatu dut amaieraz, badakigu inoizko lasterketa gogorrena egiten zabilzala eta deskantsatu beharra ere baduzula. Baina ez dut nahi zu joatea, ez dut nahi hau izatea zuzenduko didazun azken testua, ez dut agurtu nahi.

Ez dut, Imanolek dioen bezala, zu hiltzen zaren gauean lo lasai egingo, ez. Baina etorriko dira egunak lasai lo egingo dugunak eta bizitzari kantatuz mundua dantzan jarriko dugunak, zuk eman baitizkiguzu mila motibo kantatzeko alai.

Harro egon, aita, oso harro egon, ezpal honek badaki zer nolako zura izan behar duen eta.

Maite zaitut.

eramandako paper asko ez zizkioten itzuli, eta bueltatu zizkiotenak desordenatuta zeuden. «Ez da borondaterik gabe egin. Ezabatutako gogoa, badakite eta ni bezalako baten indarra bere dosierretan dagoela. Nire informazio bilketetan oinarritutako lanik ez dut egin ordutik».

Urte luzeetako kalbarioa iritsi zuen gero: 11 urteko auzibide luzeak, auzi nagusia eta ekonomikoa. Minez, baina lanean jarraitu zuela dauka gogoan Begiristain idazkariak: «Sufrimendua barrutik eraman zuten. Saiatzen zen sufrimenduaren barruan aurrera egiten, eta beste ere eginarazten». Baina mina, erraietaraino sartutako mina, azalera atera zen: min bizi atzeman zioten 2015ean. Eta zuzenean lotu zuten torturarekin.

Mugatuago, baina ibili da jendaurrean urteotan: liburuak argitaratu ditu, sariak jaso, hitzaldiak eman... *Jakin*-en errelebo eman zuten 2014an, 42 urte zuzendari egon ostean, baina inguruan segitu du «osasunak lagundu dion guztietan», Begiristainek dioenez. Baina itzali da. Igandean agurtu zuten Arrizabalagak. «Libre sentitzen zela esan zidan, lasai zegoela».

Usurbilen bizi izan da urteetan. «Herriko erreferenteen artean egon da», azaldu du Xabier Arregi lagun eta alkate ohiak. 1990etik izan dute erlazioa euskalgintzan. Beste heriotza esanguratsu bat Usurbilen: «Artzetarrak, Zumea, Torreal dai... Herri honen pizkundeari ekarpen izugarria egin diote, eta badoaz. Belaunaldi berriok hartu beharko duguardura».



Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zuen 2016an.

JON URBE / FOKU

**IRITZIA**  
Iñaki Uribe

'Euskaldunon Egunkaria'-ko kontseilari ordezaria



## Basamortuak zeharkatzen

**P**rentsa Euskaraz!> harrezkeroztik harkada eman genuen *Argia*-kook Euskal Prentsan hurrengo helburua genuen *Egunkaria* aldarrikatzen, amesten, diseinatzen eta prestatzen. Luzea izan zen 80ko hamarraldiaren zeharkaldia.

Bukaera aldera, *Argia* eta *Jakin* hurbildu ginen lehendabizi. Elkar ondoren. Elkarren beharra genuen. Jakitun ginen *Argia*-koak.

1990eko abenduaren 6an *Egunkaria* argitaratu zenean, Editorial Kontseiluko arduraduna zen Joan Mari. Eguneroko zereginen erredakzioa zuzentzen genbiltzanok babesa behar genuen, eta babesa eskaini zigun.

Honela, beste basamortu baten zeharkaldia hasi zen. Ekonomia larri, barne krisia piztuta, erakunde publikoen boikota, Joxemiren minbizia... gogorrak izan ziren sortu ondoko lehen urteak ere. Uste

zuten eroriko ginela. Denbora kontua zela. Basamortuan urik gabe itoko ginela.

Joxemi hil zenean, 93ko urtarilean, elkarri begira geratu ginen Joan Mari eta biok. Zu ta ni, ni ta zu... Eta Martxelo topatu genuen. *Egunkaria*-k luzarozan izan zezakeen zuzendaririk egokiena.

Jaurlaritzak ezarritako dirulaguntza basamortuan jarraitzen genuen. Eta berriz ekin genion «diplomaziari» Joan Mari eta Martinekin. Bidea egin genuen, eta iritsi ginen 94ko akordiora.

Bilera bakoitza prestatzeko, bazkaria eta bazkalondoa. Edota mendi ibilaldi luzeak. Indarraldiak eta txakalaldiak. Indarra buruan zela ikasi nion. Elkarrekin luze jarduten genuen, eta erraz konektatzen genuen. Bagenekien begiak luzera begiratzen jarri eta urratsak banan-banan egiten. Helburuak zehazten joan, eta erdietsi ahala berriak ezartzen. Azkarra zen, argia, zorrotza.

Martin ohorezko lehendakari, eta Joan Mari lehendakari jarri zen. *Euskaldunon Egunkaria* onenean zegoen. Sekula baino irakurle eta iragarle gehiagorekin. Jauzi bat emateko prestatzen ari ginen. Orduan itxi zuten.

Asko sufriarazi ziguten. Minbizia garatu zuten Inmak, eta hil egin zen. Bere buruaz beste egitera eraman zuten Pello, eta bere buruaz beste bat egin zuen. Minbizia Martxelok, eta gainditu egin zuen. Joan Mariri, ordea, hezurren muneraino sartu zioten minbizia. Torturak, kartzela... Beste harkada bateko basamortu luzean, Auzitegi Nazionalaren aurrean geure buruaren defentsan jardun behar izan genuen. Epaiketa nagusia eta ekonomikoa. Zalantzen eta beldurren itolarrian.

Absolbitu gintuzten, baina errudun ginen. *Egunkaria* sortu egin genuen. Baimenik eskatu gabe. Bizi eta iraurarazi egin genuen.



# Eskerrik asko.

**JOAN MARI TORREALDAI** [1942-2020]

«Nire eskarmentuko lezioa esaldi honek bil dezake: ezina ekinez egina. Abiatzerakoan lortezinak ziruditen hainbat ekimen, ekinaren poderioz, burutzerara iritsi izan gara»



**IRITZIA**

Beatriz Zabalondo

BERRIA Taldeko lehendakaria



## Miraz

**U**rte asko dira behinola entzutez eta liburu-kazetetatik ezagutu genuen gizon hura lehenengoz aurrez aurre ikusi nuena. Laurogeita hamabia izango zen, *Jakin*-eko bulegoarekin partekatzen genuen korridore hartan. Atzera-aurrerako batean; hura honantz eta ni harantz, edo alderantziz. Agur soil bat besterik ez. Nire bizitzako egutegian ez dago egun seinalaturik horretarako. Hantxe izan zela. Mira nion euskaraz hain ederki egiten zuelako, nola ahozkoan hala idatzian. Ideia interesgarri eta niretzat berri haiek era lau ulergarri errazean adierazteko gauza izateagatik nion mira. Nik aditzeko hizkeran. Edonork gozatzeko eran.

Aurreko urteetan *Egunkaria*-ren proiektuko «kide» izanagatik, ez genuen elkar ezagutu. Joan Mari makineria bururatzan eta gu tresna txiki bati eragiten ari ginen eta. Ilkaste. Ahal genuentzua ematen.

*Egunkaria*-ren lehen urteetan ilkaste, eta, ondokoetan, pasilloaren ilunpea zeharkatu eta gure txokora hurbiltzen zenean, Paulorekin edo Andorekin hitz egitera, gu belarriak erne: ikaste orduan ere. Zuzeneko harremanik ez artean. Erreferentzialtasuna. Mira nion idazle sasoioko hari. Beti lan eta lan ari zen hari. Zer proiektu ezinbestekotzat hain garbi zeukan intelektual hari. Begira egon barik, egin egiten zuten behargin hari. Herriaren laguntza eta bermeari hainbesteko fedea zionari. Hala ikusten nuen nik sasoi haietan.

Handik urte batzuetara bildu ginen bigarren *Egunkaria*-ra, eta han jarraitzen zuten Joan Mari. Makineria ordurako dezente hobetuta eta oliotatuta ari zen. Martxa oso onean ziharduen; euskarazko kazetaritzaren habe nagusiak kokatua eta finkatua zirudien. Eta horrekin amets garrantzitsuetako bat osatua eta bete ikusi zuten. Ziur naiz.

Ondotik etorri zen ankerkeriaren lekukotasun neurrigabea jaso zuten, bere larruan. Ez daukat ahazteko Joan Mariaren saminaren tamaina *Jakin*-eko bere bizi guztiko lana izan zenaz biluztu zutenean, eskuetatik kendu ziotenean, ezer gabe utzi zutenean. Betiko iltzatuta geratu zitzaizkion hori eta gau malapartatu hartan agur esatean etxekoan begiratua. Barrua erre zioten.

Joan Mari utzi diguna ezin da neurtu. Bere legatua lan, idatzi eta izendapen-omenaldetatik harago doa. Bizitza kulturaz uztartu eta kultura bizitzari lotzeko mira eman digu. Eta euskarazko kazeta batean sinesteko indarra. BERRIAREN esker ona bera dagoen tokiraino iritsiko da, gaur eta betiko.

# berria

Asteartea  
Apirilaren 13a  
2010. VIII. urteko  
2.14. zortziakia  
1,10€  
www.berria.info

# Joan Mari

## Bidegabekeria agerian utzi du absolutzioak

«Memoriaren berreskurapenean, badirudi dena hildakoetara mugatzen dela. Erreprezio kulturala eta linguistikoa aintzat hartu behar da. Zer da zentsura, erreprezioa ez bada?»

# berria

Informatzeak  
zenbat balio duen

[1942-2020] JOAN MARI TORREALDAI

## Euskaldunon Egunkaria

‘Euskaldunon Egunkaria’-ren proiektua sorreratik bertatik babestu zuen Joan Mari Torrealdaik, eta Egunkaria Sortzen taldean aritu zen, egitasmoarentzako sostengu bila. Gerora Administrazio Kontseiluko kide gisa Torrealdaik egindako «diplomazia lana» goraiatu dute orduko lankideek.

# Ateak ireki eta hormak gainditu

Maidar Galardi F. Agirre

**G**araia da. Ordua da. Orain da». Hala zioen Joan Mari Torrealdaik *Gaur irekiko ditu atek* dokumentalean (2015), *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorreraz galdetuta. Erabat sinetsita zegoen euskarazko egunkari nazionala egiteko garaia zela hura: «Eztabaida utzi, eta egin dezagun». Torrealdairen moduan, beste hainbat euskaltzalek ere bat egin zuten proiektuarekin. Tartean izan ziren Imanol Murua Urika kazetari eta EHU Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Nerea Azurmendi kazetari eta jesuita. Gogoa dute 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990ekoaren hasieran egindako lan eskerga. Batzuek erredakzioan, beste batzuek bideragarritasun ekonomiko antolatzen, eta beste batzuek «diplomazia lanetan». Nagusiki zeregin horretan aritu zen Torrealdaik, «pixkanaka horma lodiak hausten eta atek irekitzen».

1980ko hamarkadaren amaieran, Argia aldizkariaren bueltan

sortuzten egunkariaren proiektuaren gaineko gogoeta. Unibertsitetik irten berria zen orduan Murua, baina Argia-n kolaboratzen zuten ordirako, belaunaldi bereko beste hainbat kazetarirekin batera: «Denbora gutxi generamala, ohartu ginen egunkariaren ideia oso serio hartua zutela, egunkaria martxan jartzeko garaia zela erabakia zutela... Tokatu zitzaigun momentu egokian leku egokian egotea, beste batzuek pentsatu zuten martxan jartzeko». Egunkaria sustatzeko taldean zeuden Pello Zubiria, Iñaki Urika, Josu Landa eta Joxemi Zumalabe bera.

Aldizkariko talde hark, ordea, ondorioztatu zuen beharrezkoa zela talde sustatzaile indartsuago eta zabalago bat sortzea proiektuari babesa emateko, eta, asmo horrekin, 1989ko azaroaren lehen bileran bat egin zuten Donostian, EKB Euskal Kulturaren Batzarreak deituta. Bertan parte hartu zuen Torrealdaik –Jakineko zuzendaria zen, eta beste zenbait taldekide ere izan ziren bilera hartan–. Hilabete geroago, berriz, Durangoko Azokan, *Euskaldunon Egunka-*

*ria* izango zenaren oinarriak finkatu zituzten, eta 1990eko urtariraren 21ean aurkeztu zuten Egunkaria Sortzen taldea, proiektua bultzatzeko ardura hartu zena: «Hor ikusi zen Torrealdaik hartu zuela protagonismoa. Hor sortu zen proiektu osoaren motorra, gerora Administrazio Kontseilua izan zena: fronte diplomatikoa», nabarmendu du Murua.

Auzmendi eta Azurmendi, biak izan ziren Egunkaria Sortzen-eko eta Administrazio Kontseiluko kideak. «Garai hartan, emakume gazte batentzat ohorea zen une horiek partekatzea Martin Ugalderekin, Joan Mari Torrealdairekin, Txema Auzmendirekin...», kontatu du Azurmendik. Auzmendi ere oroitzen da Euskal Herriko hainbat herritan ibili zirela eragileetako eta erakundeetako

ordezkariekin biltzen, proiektuarentzat babesa lortzeko.

### Ate joka eta sostengu bila

Herrietan egunkariaren aldeko batzordeak sortu ziren, baina topatu zituzten hainbat oztopo bidean: «Oso zaila zen garai hartan. Mesfidantza handia zegoen», dio Murua. «Ustez Torrealdaik ger-

### «Mesfidantza handiak» zeuden ‘Egunkaria’-ren proiektuarekin, eta bide gogorra egin behar izan zuen Torrealdaik

tu zituen euskalgintzako zenbait kideren aldetik ere bai. Berak esaten zuen sinesten zuela erabat gure proiektuan, eta gogorrek egiten zitzaizkiola han eta hemen ikusten zituen mesfidantza».

Oroitarazi du, gainera, Eusko Jaurlaritzak garai hartan bazuela euskarazko egunkari publiko bat sortzeko proiektua, eta talka izan zela hori: «Gu beste proiektua ginen, Jaurlaritzarena ez zena».

Azurmendik uste du «bermea» izan zela prozesuan Torrealdaik, Auzmendi, Ugalde eta Zumalabe –beste batzuekin batera– alboan edukitzea: «Haien lana erabakigarria izan zen. Hori gabe ere bazuen sinesgarritasuna, baina sendotasuna eta bermea ematen zioten proiektuari». Murua ustez, Jakinekin zuen «mundu ikuskera» eraman zuten *Egunkaria*-ra: «Jakinekin izpiritu oso irmoa zeukaten: kulturgintzako autonomiarekin jotatu behar zuela. Gurera ekarrita, guk kazetaritza independentea genuen». Ez zuten berehalakoan babes instituzionalik lortu, ordea.

Nolanahi ere, proiektuak ez zuen atzera-bueltarik ordurako. 1990eko uztailaren 15ean jaialdi bat egin zuten Donostiako belodromoan, eta orduan argitaratu zuten zero zenbakia. Handik ia bost hilabetea kaleratu zuten lehen zenbakia, abenduaren 6an. Eta, biharamunean, hurren-



**EUSKALDUNON**  
**Egunkaria**

JOAN MARI  
TORREALDAI [1942  
2020]

«Oso zaila da rankinga zehaztea liburu beltz batean. Baina ‘Egunkaria’-rena ez litzateke azken puntuan egongo: uste dut oso letra larri eta beltzetan agertu beharko lukeela»



**Aurkezpena.** 'Egunkaria' aurkezteko agerraldia, 1990ean: Zumalabe, Ugalde, Uria eta Torrealdai. EGUNKARIA

goa. Euskaldunon Egunkaria martxan zegoen, horrenbestez.

### Bidean nola egin aurrera

Eguneroko martxan batzuk eta ate gehiago irekitzeko asmotan besteak, bidean hasi zen *Euskaldunon Egunkaria*. «Harrigarria da zer konfiantza ematen ziguten», dio Muruak: «Pentsatzen genuen: 'Hauek ere gurekin daude'». Azurmendik gehitu du «ongi pentsatutako» proiektua zela *Egunkaria*-rena, eta Torrealdairen rola nabarmendu du: «Askoren aurretik joateko gaitasuna izan du». 1994an lortu zuten aurreneko Jaurlaritzak diru laguntza ematea: «Errekonozimendu txiki bat izan zen», dio Muruak.

Auzmendiaren ustez, «konfiantza handia» ematen zuen Torrealdaiak: «Bazekien nondik jo, nola egin...». Gerora ere eutsi diote Administrazio Kontseiluan aritu zirenean sortutako harremanari: «Aho zabalik begiratzeko modukoak zen». 2003ko otsailaren 20an itxi zuen Guardia Zibilak *Egunkaria*, eta harekin izan zen ziegan Auzmendi. Egun haietan eman zion babesa ere ondo gogoan dauka. Hasieratik bukaeraraino «eskuzabala» izan zen Torrealdai.

### Enekoitz Esnaola

**E**gunkaria-ren aurkako epaiketaren hasieraren bezpera da, 2009ko abenduaren 14a; Andoainean (Gipuzkoa) daude bost auzipetuak, Martin Ugalde kultur parkean: Txema Auzmendi, Xabier Oleaga, Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealdai eta Iñaki Uria. Prentsaurrekoa eman dute, eta Madrilera eramango dituen autobusean sartzera doaz. Haiek agurtzera azaldu dira 50en bat kide. «Itzuliko gara, itzuliko gara». Torrealdai esan die itzuliko direla. Lehenago, azaldu du berriz ere «behartuta» eta «gogoz kontra» doazela Madrilera, 2003ko otsailaren 20ko itxiera operazioan bezala, baina «burua goian». Itzuli ziren, itzuli zirenez: absolutzioa (2010eko apirilaren 12a).

Epaiketaren lehen egunean deklaratu zuen hark, beste auzipetuek bezala. «Absolutzioa gutako bakoitzarentzat eta denontzat, absolutzioa *Egunkaria*-rentzat. Ez dugu beste emaitzarik ontzat emango», esan zuen epaimahaia-aren aurrean, Espainiako Auzitegi Nazionalean. ETAko kide izatea, diruz laguntzea edo erakunde armatuaren dirua zuritzea leporatuta, bost auzipetuen aurka hamabi eta hamalaua urteko kartzela zigorrak eskatu zituzten herri akusazio Dignidad y Justicia eta AVT elkarteek. Fiskaltzak kasua artxibatzeko eskatua zuen. *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten garaian, Administrazio Kontseiluko lehen-dakaria zen Torrealdai –eta *Jakin-*

'Egunkaria'-ren aurkako bi kasuetan auzipetu zuten Torrealdai: itxierakoan, absolutzioa izan zen, eta ekonomikoan, artxiboa. 11 urtetik gorako «tortura fisiko eta psikologikoa» pairatu zuen.

## «Ez ahaztu»

eko zuzendaria, 1977tik-, eta, zehazki, hamalau urteko espetxea eta hamabosteko inhabilitazioa galdegin zuten haren kontra. Akusazio guztiak ukatu zituen: «Gurea kristalezko etxea zen. Ez genuen ezer ezkututzen, ez genuelako ezer ezkutatzeko». Harrituta agertu zen *Egunkaria*-k ETA finantzatzaren zuela egotzen zitelako. «Nola egingo genuen hori, hilaren amaierara iristeko gai ez baginen!».

Euskararen aldeko militantziak batzen zituen egitasmo kideak, haren hitzetan, eta «obsesionatuta» zegoen kazetaren pluraltasuna, autonomia eta independentzia zaintzarekin, epaimahaiari azaldu zionez; bestela, ez zuen parte hartuko edo segituko proiektuan.

### Tortura

*Egunkaria*-ren itxierako gaua: guardia zibil ugari joan ziren Torrealdairen etxera, Usurbilera (Gipuzkoa), goitik behera armatuta; han ziren Torrealdairen seme-alabak –10 eta 12 urtekoak-, eta metraileekin apuntatu zieten guardia zibilek. Egoerak markatu egin

zuen: «Izugarrria izan zen seme-alaben aurpegian mina ikustea. Ni hor bertan lur jota geratu nintzen». Erasoa ez zen horretan geratu: «Gero nire materialen xahutzea etorri zen, material guztiaren bortxaketa. Idazkari judizialak esan zidan 'zenbat paper duzun!', nire errua izango balitz legez». Gehiago: «Hiru egun eta hiru gau

**Epaiketari, akusazioak ukatu, eta absolutzioa eskatu zuen: «Ez dugu beste emaitzarik ontzat emango»**

zutik eduki ninduten, lo egin ezinik, paretaren kontra. Deklaratzen eramaten ninduten. Jo egiten ninduten. Plastiko bat erakutsi eta belarriraino eraman zidaten, mehatxu eginez».

Guardia Zibilaren esku bost egun inkomunikatuta egin ostean, Torrealdai, Uria, Oleaga, Auzmendi eta Xabier Alegria baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu zuen Juan del Olmo instrukzio epaileak. Urte bereko martxoaren 14an utzi zuen aske Torrealdai, Auzmendi-

rekin batera, hamabina mila euroko bermea ordainduta. Kartzelatik irten ostean, tratamendu psikiatrikoa jaso zuen; «gutxienez, urtebetez, eta, gero, noizean behin».

Operaziotik hamabi urtera eman zuen atxiloaldiko –«infernuko»– testigantzen berri lehen aldiz jendaurrean: Baionako jardunaldi batzuetan, 2015eko apirilaren 11n. Dokumentu bat azaldu zuen, urte berean datatutakoa: «Usurbil, 2015.02.20. Atxilotakaren 12. urteurrena». Epaiketaren zain egondako urteak, epaiketa bera eta horrek guztiak ekarritako ondorioak ere esplikatu zituen, eta albiste bat eman: hezur muineko minbiziaren zeudakala. «Prozesu guztia izan da tortura: fisikoa eta psikologikoa. Eta horren guztiaren ondorioak orain ari naiz pairatzen. [...] Ez naiz sendagilea, eta ez dut frogarik aurkeztuko. Nire minbiziak erroak non dituen, ordea, nik garbi dut, eta nire psikiatrak ere bai». Imanol Kerejeta zuen psikiatra, eta berretsi egin zuen azalpena.

### Amaiera, handik 11 urtera

Baionako testigantza eman zuenerako, amaitua zegoen *Egunkaria*-ren auzi ekonomikoa ere: 2014ko urriaren 14an, Gipuzkoako Lurralde Auzitegiako 3. sekzioak artxibatuta egin zuen. Han ere bazegoen auzipetua Torrealdai, beste zazpi kiderekin batera. *Egunkaria*-ko auzipetu izandakoek ekitaldi bat egin zuten handik hiru egunera, Martin Ugalde kultur parkean, eta Torrealdai egin zuen hitzaldia. Eske-rrak eman zituen, eta eskaera bat egin: «Ez ahaztu».



Auzmendi, Oleaga, Torrealdai, Uria eta Otamendi, 2009ko abenduaren 15ean, Madrilén, epaiketako lehen egunean. ANDONI CANELLADA/FOKU

«Euskalgintzak etorkizuna bere eskuetan hartu behar du, erakundeei begira gelditu gabe: batasun estrategikoa behar du, akordio programatikoak adostuta elkarrekin»

## Ane Eslava

**L**ekukorik jaso gabe hasi ziren oinez, bidea urratzen. 60 urte baino gehiagoko bidea osatua du Jakinek, nahiz eta urte horietako batzuetan zentsurak isilarazirik egon. Taldearen arima izan da Joan Mari Torrealdaik: aldizkariaren zuzendari aritu zen 42 urtez, 2014ra arte, eta Jakin talde historikoko kide izan zen Joseba Intxaustirekin, Joxe Azurmendirekin eta Paulo Agirrebaltzategirekin batera. Jakin fundazioko lehendakaria izan da azken urteotan. Euskaratik herria egitea, kultura ardatz hartuta. Horra Jakinen jomuga. Torrealdairen ekarria ezinbesteko akutilua izan du zeregin horri heltzeko.

Aldizkaria da *Jakin*, baina hori baino askoz gehiago ere bai. Arantzazuko santutegiko (Oñati, Gipuzkoa) frantziskotarren inguruan jaio zen taldea, 36ko gerraren ondoren euskarak zeukan babesleku nagusian. «Hango ikasleen kontua izan zen: 1956an Euskaltzaindiaren gerraosteko lehen biltzar irekia izan zen han, eta bertako gazte frantziskotarrek erabaki zuten zerbaite egiten hasi behar zutela», gogoratu du Intxaustik. Ordurako prestatu zuten aldizkariaren lehen zenbakia, eta bertan agortu zen. Hori izan zen *Jakin*-en lehen jaiotza. Beste asko izan baititu, garaian garaira egokituz eta berrasmatuz joan delako. «Urte asko izan dira, gorabehera asko, eta guztiari erantzun behar izan zaio, bide berriak asmatuz», adierazi du Intxaustik.

Torrealdaik 1963an sartu zen Jakinen. 2016an Eusko Ikaskuntzarentzat eginiko memorian jaso zuen Jakin «beren plataforma propioztat» zutela gerraosteko belaunaldiek, eta bera heltzerako «izena eta izana» zituela taldeak. 1967an aldizkariaren zuzendaritza hartu zuen –arritua zen aurrez ere, 1964an–. Hala azaldu zuen egoera: «*Jakin* zer zen? Mantxeta bat eta harpidetza mordoxka bat. Ez bururik ez gorputzik zuen, ez zuten lantalderik ez egiturarik». Planteamenduak aldatzen hasi ziren: aldizkaria sekularizatu zuten, hiritatu, eta gaiak aldatu zituzten, gizartearen kezkei erantzuteko. «Joan Marikomentu eta



2014an erreleboa eman zuten *Jakin* aldizkarian: Lorea Agirrek hartu zuen zuzendaritza, talde baten babesarekin. JON URBE / FOKU

## Jakin

1a 60 urteko bidea egin du Torrealdaik Jakinen. Aldizkaria izan dute ikur nagusi, eta Torrealdaik bera izan zuen zuzendari 42 urtez, 2014 arte. Haragokoa da, ordea, Jakineko kide historikoen ekarpena eta itzala: itsasargi izan dira hamarkadetan.

# Euskaratik herria egiteko plaza

## Jakin

eliza girotik kanpoko proiektioa egin zuen», dio Intxaustik. «Ekarpen hori hari zori diogu zuzenean».

Torrealdairen orduko zuzendaritza ez zen luzea izan, ordea: 1969an, Espainiako Gobernuak aldizkaria argitaratzea debekatu zuen. Urte zailak izan ziren. Kanpora jo zuten taldeko kide ugari –Torrealdaik bera Okzitaniako To-

losara joan zen, eta Parisera handik–. Intxaustik hartu zuen lekukoa 1970ean. «lankidetzari segida emateko» ahaleginarekin. Indartu egin zuten taldea, eta bide berriak urratu –besteak beste, handik sortu zen UZEI Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Ikastegia–. Funtsezkoa izan zen Mila eta Pili Larrea ahizpen laguntza. Azpiegiturarekin lagundu zieten, eta beste lan batzuk egin zituzten: «Artikuluak makinaz kopiatu, li-

buruak argitaratu, bazkideen fitxei jarraipena eman, biddalketak prestatu...», azaldu du Mila Larreak. Ateak ireki zizkien: «Euskal kultura ezagutu eta euskara ondo menperatu genuen».

Torrealdaik 1975ean itzuli zen Euskal Herrira, eta Jakinera bildu zen berriro. Beste bi urte joan ziren, ordea, aldizkariak argitaratzeko baimena jaso arte. Orduan hasi zen *Jakin* aldizkariaren aro-

rik luzeena, etenaldirik gabekoa, Torrealdairen zuzendaritzapean. «Kultur, pentsamendu eta saio aldizkari kritikoa» izatea jarri zioten helburu *Jakin* aldizkariari.

1975etik 1977ra, Euskal Herrira itzuli eta *Jakin* argitaratu gabe egon zen urteetan, beste enkargu bat hartu zuen Torrealdaik: *Anaitasuna* aldizkaria zuzendu zuen.

## ANAITASUNA



Bizkaiko aldizkari hura «krisitik ateratzeko» zeregina hartu zuten Intxaustik eta biek. *Jakin* argitaratzeko baimeana heldu zitzaizenean utzi zuten *Anaitasuna*-ko lana.

1977tik 2014ra arte jardun zuten Torrealdaik zuzendaria. Aurreko urteak zenbatuta, 42 urteko ardurua, eta ia 60 urteko bidea Jakinen, aldizkariaren zuzendaritza uztean fundazioaren lehendakaritza hartu baitzuen. Lekukoa Lorea Agirrek hartu zion aldizkarian.


### Batasunaren aitzindari

Aldizkaria izan du plaza nagusi Jakinek, baina handik haragokoa da haren ekarpena eta itzala. Euskararen batasunaren aldeko lana da nabarmenetako bat. Batasunaren bidea urratzen aitzindariak izan ziren aldizkarian. «Konbentzitututa geunduen erabat premiako zela», kontatu du Intxaustik. Ez zen izan, hala ere, taldeko kide historikoek euskalgintzan egindako ekarpen bakarra: UZEI sortzea, Intxaustik euskararen historia sozialaz egindako lanak, Azurmendiren tesia eta argitalpenak, Agirrebaltzategi EKB Euskal Kulturaren Batzarrearen lehendakari jardutea, Torrealdaik liburugintza egindako azterketak eta Eus-

**'Jakin'-eko zuzendari hiru arotan jardun zuen: luzeana, 1977tik 2014ra. 1969tik 1977ra zentsura jasan zuen aldizkariak**

*kaldunon Egunkaria*-n hartutako ardurak... Euskalgintzaren erdigunean egon zen *Jakin* taldea. Lan ugari digitalizaturik jarriak dauzkate herriar gutzien eskura.

Hamarkada luzeetan egindako bidearen aitortza jaso zuen lauokoteak 2018an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Urrezko Dominarekin: «pentsamenduan, kultur eragiletzan, argitalpengintzan, euskal kulturaren eta euskara batuaren eremuan egindako lana» goraipatu zieten. Torrealdaik berak ekitaldian nabarmendu zuen aldizkari irekia egun zutela: «*Jakin* ez da izan pulpitu, ez katedra. Plaza izan da. Herriko plaza, gogoetaren plaza eta lankidetzarako elkargunea. Horregatik, pentsamenduen geografia zabaletik hurbildu zaigu jendea». Euskara ardatz gisara hartuta lantzen zuten funtzio hori: «Euskalgintzaren zentraltasuna ez da eslogan hutsa. Gure proposamen nagusia da herrigintzaren eraikuntza».



**IRITZIA**  
Lorea Agirre

'Jakin' aldizkariako zuzendaria


## Euskararen Amaiur honetan

**G**izarteari lotzen gatzazkion lekuak bizitzaren zentzuaren berri eman lezake.

Joan Mari Torrealdaik euskararen eta herriaren aldeko borrokatik izan ziren aldizkarian. «Konbentzitututa geunduen erabat premiako zela», kontatu du Intxaustik. Ez zen izan, hala ere, taldeko kide historikoek euskalgintzan egindako ekarpen bakarra: UZEI sortzea, Intxaustik euskararen historia sozialaz egindako lanak, Azurmendiren tesia eta argitalpenak, Agirrebaltzategi EKB Euskal Kulturaren Batzarrearen lehendakari jardutea, Torrealdaik liburugintza egindako azterketak eta Eus-

Eta hori du bere bizitzaren zentzua, bizi duen lekua.

Torrealdaik hasiera berri bat da. 50eko hamarkadan, gerraosteko lugorrian, bide berri bat ekarri zuen belaunaldiko kide da. Etena lotu zaio herri izan nahi duen gutasun honi. Zehatzago esan, euskalgintza herrigintzaren eraikitzearen erdigunean jartzetik.



**IRITZIA**

Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi

Jakinkideak

## Joan Mari, ez adiorik!

**A**gur modu horixe maite huen bereziki, Joan Mari, gure adiskide Manex Erdozaintzirengandik ikasia. Ez adiorik!

Mendian hirekin ibili izan garenok edo ibili direnengandik jakin dugunok ezaguna diagu hire mendiko martxa: besteok baino indartsuagoa eta bizkorragoa izanik hi, eta mendi-bideetako gidari, aurreratu egiten hintzen mendian gora; eta besteok ahal genuen neurrian segika atzetik. Baina tarteka geratu egiten hintzen, eta atzeko zain itxaron, berriro elkarrekin, taldean, nondik norakoa ikusi eta gailurrerako bidea erabakitzeke.

Bada, horrelaxe ezagutu dizkiagu hire burubide eta jokabidea euskal kulturagintzako aldapan gorako igoera luze honetan ere. Heure ekimenez eta ekinez aurreratu haizenean hainbat egitasmo abian jartzeko, jakin izan

duk itxaronaldia egiten, eta bilera antolatzen –bat edo gehiago–, proiektuaren norakoak elkarrekin aztertu eta eztabaidatzeko, taldearen proiektu, plangintza eta langintza bihurtzearen. Talde-lana predikatu diguk beti *Jakin* taldean, eta talde-lana antolatzen saiatu haiz.

Beste gauza bat ere erakutsi izan diguk argi: euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren eremuak bere autonomia onean egin behar dituela bidea eta lana. «Euskara – Euskal Kultura – Euskal Herria» burubidetzat hartuta *Jakin*-en, autonomia eskatu eta zaindu izan duk arduraz: erakunde publiko nahiz alderdi politikoekin errespetu eta elkarlan egokian, baina bere bidetik. Eta asmatu egin dualakoan eta digualakoan gaudek.

Heuk gidatu eta bateratu izan duk gainera *Jakin* lauokote «historiko» hau azken urte luzeotan.

noranahikoak. Herentziarik gabe jaio zen belaunaldi hark, tartean Torrealdaik, eskuzabaltasun osoz, baratze ongarritu bat utzi digu herentzian.

Torrealdaik kontzientzia bat da. Kontzientziarik ez zegoen garaitik kontzientzia modan ez omen dagoen garai hauetarako irakaspen bat. Kontzientzia bat kate bati eusteko, lotzeko bezainbeste hausturak eragiteko. Berritzeko, berrasmatzeko. Garaia irantzuteko. Kontzientzia bat auzien garrantziaz jabetzeko, egin behar denaren eta egiten ari garenaren garrantziaz ohartzeko.

Torrealdaik konpromiso bat da. Erdigune ez-ekidistante batetik, lotzeko zibilean, euskalgintza beregainen eta profesionaltasun militantean sustraizten dena.

Torrealdaik taldetasun bat da. Besteekin lankidetzan jarduteko gaitasuna eta egitasmoak –egiturak, beti egiturak– sortu arteko onik eza. Oi-

narriak jartzen, aldamiok altxatzen hainbat eta hainbat egitasmoan. Eta bereziki Torrealdaik Jakinda, eta *Jakin* bera ulertzeko moduak ahalbidetu dio beste mila egitasmoan eragiletzan aritzea.

Torrealdaik galdera bat da. Zer da euskarak behar duena, zer da herri honek behar duena. Euskararen askatasuna eta bizia defendatzen eman du bizitza. Mundu propioa sortzen eta elikatzen. Geure baitakoak izan gaitzen, ez menpeko perpaus. Buru askiak eta askeak.

Torrealdaik pribilegio bat da Euskal Herriarentzat. Sinbolo bat, jada: euskararen aldeko borrokatik, borroka horregatik atxilotua izanagatik, torturatua, epaitua, epaiaren zain zazpi urte egon eta gero zorianez libre ateratzen izanagatik. Sinbolo bat, ez ordainkoraindu gabe, halere. Euskararen Amaiur honetan, Torrealdaik gure lekua da.



Intxausti, Azurmendi eta Agirrebaltzategi, Torrealdairekin. JON URBE / FOKU

Uste genian besteok hire aurretik joan behar genuela. Orain murriztuta gelditu duk taldea.


Hirurok aldetik, bihotzez, ez adiorik, Joan Mari!

Jaun-andreok, euskal kulturagintzaren alorreko langile eta gidari handietan handia joan zaigu, egile eta eragilea, bultzatzaile eta koordinatzailea: kazetari eta idazle oparoa, euskal kulturaren ikertzaile kritikoa saiatua, euskal kultur ekimenen sustatzaile ke-

mentsua, euskal kulturako enpresa-zuzendari eta kudeatzaile eraginkorra; eta, euskaltzain urgazle gaztetatik eta euskaltzain osoa 2009tik aurrera, Euskara batuaren defendatzaile eta praktikatzailea, batasuna ofizialdu aurretik ere. Hori dena eta gehiago izan dugu Joan Mari Torrealdaik. Betiere, *Jakin* aldizkaria eta proiektua bere ekimenez eta lantzen ardatz.

Ez adiorik!

«Editorialak falta ziren, kazetariak, elkarteak... Hori zen orduko Euskal Herria, eta zentsurak giro hori eskatu egiten du. Gizartea hila da truke ideologikorik gabe»



Joan Mari Torrealdaik, euskaltzain oso izendatu zuteneko ekitaldian, Foruan, 2009an.

MARISOL RAMÍREZ / FOKU

#### Maddi Ane Txoperena Iribarren

**J**oan Mari, batzordean egin dituen gauzez gainera, Euskaltzaindiari bere osotasunean eman digu kronista bat, lehen eskukoa eta luxuzkoa. Egiten ari ginaren kronika egiten ari zen, eta aztertzen. Horretan eduki du ikuspegi osoago bat: Euskaltzaindiaren soziologia bat egina zuen, eta egiten segitzen zuen». Halaxe definitu du Lourdes Oñederra euskaltzain, kide eta lagunak Joan Mari Torrealdairen Euskaltzaindiko ibilbidea. Oñederrak ez zuen zuzenean harekin lan egin batzordeetan, baina gogoratu du haren ondoan zuela eserlekua bilera orokorretan, eta harekin batera egin zuela euskaltzain oso izateko urratsa, 2007an: «Normalean ez ginen ados egoten, baina oso ondo pasatzen nuen nik Joan Mariarekin». Euskaltzaindiak 2005ean harturiko erabaki baten ondorioz sartu zen Torrealdaik Euskaltzaindira. Izan ere, erakundeak erabaki zuen 75 urteik gorako euskaltzainak emeritu izendatzea, eta gazteagoak saritzea akademiara. «Joan Mari Torrealdaik izan zen emeritutasun horren ondorioz euskaltzain oso izatera iritsi zirenetako bat», azaldu du Andres Urrutia orduko eta oraingo euskaltzainburuak.

Ez zen orduan hasi euskararen akademiaren lanean, ordea; ibilbide «oparoa» egin baitzuen urte anitzetan, Urrutiaren arabera. Hasieratik aritu zen euskara batuaren alde, Euskaltzaindian bertan zein *Jakin*-en, euskara batua praktikan jarriz. Euskaltzaindiaren 90. urteurrenean, *Euskaltzaindia. Ekin eta jarrai* liburua idatzi zuen Imanol Murua Uriaren batera, 2009an. Eta Azkue biblioteka eta artxiboaren proiektuan buru-belarri aritu zen azken urteetan, horren arduraduna baitzen. Puntueus fundazioko presidente ere ibili zen, Euskaltzaindiaren ordezkari.

Torrealdaik berak 2016an Manuel Lekuona saria jaso zuenean azaldu zuenez, 1960ko hamarkadan hurbildu zen Euskaltzaindira, bi «zio» tarteko: alfabetatzea eta euskara batua. Eta, hark oroitzen bezala, haren kideek ere gogoran dute nola bultzatu eta defendatu zuen euskara batua, beti. 2018an Arantzazun egin zuten Euskaltzaindiaren azken biltza-

## Euskaltzaindia

Euskaltzaindian ere ibilbide oparoa egin zuen Joan Mari Torrealdaik. Euskara batuaren sustatzaile nagusietako bat izan zen hasieratik, eta euskaltzain oso gisa Azkue biblioteka eta artxiboko buru izan zen. Euskaltzain emeritua zen 2017tik.

# Euskara batu, kontatu eta biltzea

JOAN MARI TORREALDAI [1942-2020]

«Garai bateko hizkuntza moldean esanez, euskara batuak ez du euskara salbatuko, baina euskara baturik gabe euskara ez da salbatuko»

rrean, hari eman zioten azkeneko adierazpena idatzi eta irakurtzeko ardura: «Guztiok ulertu genuen norbaitek merezi baldin bazuen hori irakurtzea Joan Mari Torrealdaik merezi zuela, besteak beste *Jakin*-eko zuzendaria izan zelako, eta *Jakin*-ek beti eutsi ziolako Euskaltzaindiak harturiko euskara batuaren biderei». Hala gogoratu du Sagrario Aleman euskaltzainak ere: «Arantzazun egindako bilerarako adierazpena berak prestatu zuen, neurri handi batean. Noski, beste batzuek lagunduta, eta guztien oniritziarekin, baina bere gain utzi zen adierazpen hori egitea, lehen ere arlo horretan egin zuen ekarpena handia zelako, Euskaltzaindian eta Euskaltzainditik kanpo, euskararen, euskal kulturaren eta euskara batuaren inguruan». Arantzazuko 2018ko adierazpenean, kezka agertu zuten batuaren aurka zabaltzen ari ziren iritziekin. Belaunaldi berriei transmititzea jarri zuten erronka: «Haiei dagokie eskuratu dieguna osatu, hobetu eta hurrengoei transmititzea».

Adierazpen hura baino 50 urte lehenago Arantzazun egindako biltzarren eta Bergarako 1978koaren artean egin zuten euskaltzain urgazle, 1975eko ekainaren 27an. Baina aitzinetik hasia zen horretan lanean. 1964ko Baionako biltzarrean parte hartu zuen, eta 1968ko Ermuko eta Arantzazukoetan ere bai, ekarpena eginez: «Arantzazuko arauen betetze maila neurtzeko bi txosten prestatu nituen, 1968an gomendatu ziren arauak idazleek eta editoreek, bai liburuetan eta bai aldizkarietan, nola bete zituzten neurtzeko».

2007ko azaroaren 30ean egin zuten euskaltzain oso, artean *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa egin gabe zegoela; eta 2017an, berri, euskaltzain emeritu.

### Liburutegia eta artxiboa

Euskaltzaindiko sarrera ofiziala 2009ko urriaren 31n egin zuen Torrealdaik, sorterrian, eta «euskal biblioteka nazionalaren aldarrikapena» egin zuen sarreran, *Bibliografiatik Bibliotekara. Esperantzari leihoa* hitzaldiarekin. Azkue biblioteka eta artxiboaren ardura eman zioten, eta argitalpen batzordeko kide ere izan zen. «Biblioteka eta artxiboa berran-



Euskara batuaren adierazpena sinatzen, Arantzazun, 2018an. ARITZ LOIOLA/FOKU



tolatzeko proiektu oso bat» egin zuela azaldu du Urrutiak. Alemanek dolu du haren asmoak bururaino eraman ezin izana: «Kartzela, gaitza, denak etorri zitzaizkion gainera». Biblioteka nazionalarena, berriz, «aukera galdu» bat izan zela azaldu zion Torrealdaik BERRIARI 2016an: «Instituzioek ez dute aintzat hartzen. Orain, gainera, badirudi ez dela modernoa. Nik dakidana da Mitterrandek Frantzian sekulako biblioteka egin zuela ez direla hainbeste urte. Zergatik? Haiek estatu zentzu bat daukatelako, eta badakitelako hori ere inportantea dela».

Urrutiak oroitu du *Anaitasuna* aldizkariaren eritu zela Torrealdaik, eta hura ibili zela lanean Euskaltzaindiak aldizkariaren artxiboa digitalizatzea erabaki zuenean. Aldizkariaren historiari eta edukiei buruzko azterlan bat ere egin zuen. Jakintza zabaltzea maite zuela uste du Urrutiak: «Jakintza berarentzat gorde gabe, gutzintzako onuragarri ziren eta diren ekintzetara zabaltzen eta eramaten jakitun izan da».

### Euskaltzaindia berritzea

Torrealdaik ideia «argia» zuen Euskaltzaindiari buruz, Urrutiak dioenez: Euskaltzaindiaren «eraberritzea». Baina ez bakarrik egituraren ikuspegitik, «ezpada berak eskaintzen dituen zerbitzu eta emaitzen aldetik: Euskaltzaindia gaurkotzea, Euskaltzaindia gaurko premien arabera kokatzea». «Ikusten zuen Euskaltzaindian hainbeste gauza berritu beharra!», berretsi du Alemanek. Oñederra: «Nik uste dut oso ikuspegi ona eta konstruktiboa zekala: oso leial eta zintzoa iruditzen zitzaidan».

Haren «xalotasuna» nabarmendu du Alemanek: «Bereizizinak dira egin dituen lanak eta jende guztiarekin nola arituen, berehala prest baitzegoen laguntzeko. Euskaldun guziendako zoritxarra da horrelako pertsona bat gaitzea».

**IRITZIA**  
Miriam Urkia  
Euskaltzain osoa

## Bion aulkia

**E**z nago hor, baina bai zurekin». Halaxe hasi zuten Euskaltzaindian sarrera-hitzaldia egin nuen egunean bidali zendana mezu hunkigarria. Zeuk esaten zenuen moduan, minikrizan zeunden egun haietan, «gaur bai eta bihar ez», eta ezekoa izan zen egun hartakoa. Baina nirekin izan zinen Aretxabaletan, gurekin izan zinen, beti egon izan zaren moduan.

Eta, orain ere, *ez nago hor, baina bai zurekin*. Ez zaude hemen, baina bai gurekin. Halaxe joan zara, baina ez gaituztu utzi.

Mila istorio ibiliko ditugu ahotan egunotan, beti zu gogotan. Funtsezkoa izan zara, Joan Mari, Arantzazuko harria bezain sendo, euskalgintzan, kultur-gintzan, herrigintzan, *gintza* askotan, baina bereziki langintzan eta *lagungintzan*. Horiek guztiak gogoratuko ditugu, *Jakin*, *Euskaldunon Egunkaria*, Euskaltzaindia, Euskal Bibliotekaren ametsa, zentsura, eta beste mordo bat. Guztietan bide-urratzaile, ereile nekaezina, bidean kolpe latzak hartuta ere inoiz etsi ez duzun. Eredu-garri beti. Ondo ereinda utzi dituzu alor guztiak, ongarriritua eta ureztatuta, aurrera egin dezaten. Egindakoaz harro joan zintezkeen, baina hori ere ez zenuen egingo, seguru, egiteko zenituenak buruan bueltaka ibiliko zenituen bukara arte.

Guk biok badugu, eta hala jarraituko du hemen naizen artean, partekatzen dugun zenbaki bat, eta aulki bat: Euskaltzaindiko 29. aulkia. Errespetu handia ematen zidan Torrealdaik handiaren ondoko izendatua izateak, asko saiatauta ere inoiz ez naizelako zure laurdena izatera iritsiko. Baina horretan ere zure babesa eta goxotasuna izan nituen, beste behin erakutsi zenidan zure handitasuna ez zela akademikoa bakarrik, are handiagoa zinela lagun gisa. Ohorea izan da, Joan Mari, denbora laburregian izan bada ere, aulkikide izatea. Eta segituko dut bion aulkia zaintzen, zu ere hemen egongo zara eta, beti gurekin.

Opari galanta izan da zu ezagutzea, betiko bihotzean bizidena opari horietakoa, esker onez gordeko dudana.

Aspaldi ikasi nizkizun hitzein esango dituzt eskerririk asko eta beti arte.

Ez adiorik, Joan Mari!

**Egindakoaz harro joan zintezkeen, baina hori ere ez zenuen egingo, seguru, egiteko zenituenak buruan bueltaka ibiliko zenituen bukaera arte**

«Autoestimua gabezia ere hortxe dago. Kanpokoak sekulako lilura sortzen du, eta etxekoak, ez. Kolonizatuaren seinale»

## Liburugintza

Langile nekaezin baten erretratua erakusten dute Torrealdaiak argitaratutako ikerketa lanek. Mugarri dira, esaterako, frankismoko zentsurari buruz idatzitako doktore tesia eta euskal liburugintzaren historiari egindako azterketa.

# Ezabaketaren egiaztatzaile

Iñigo Astiz

**L**iburuzale amorratua izanik ere, edo agian hain justu horregatik, liburugintzaren itzaleko aldean egin zuen ikerketa ibilbidearen parte handi bat Joan Mari Torrealdaiak. Idazketari erreparatu, noski, baina baita ezabaketari ere. Sakonerraino ikertu zuen frankismo sasoiko zentsura aparatua, esaterako, eta barruraino murgildu zen euskararen aurkako debekuen, irainen, aurreiritzien eta ukazioen munduan ere, lehenik *El libro negro del euskera* (1998) eta gero *Asedio al euskera* (2018) bildumak osatzeko. Liburugintzaren alde argia ere jorratu zuen, ordea, eta mugarri izan dira, adibidez, euskal liburuaren buelta osoa aztertzeari eskainitako bi lan monumentalak: *Euskal Idazleak Gaur* (1977) eta *Euskal Kultura Gaur* (1997). Torrealdai izan zen ordura arte uste eta lanbro zenari metodo soziologiko zehatz eta kontrastatuak aplikatu zizkion lehena, eta, horregatik, haren izena ezinbestekoa da euskal kulturaren ikerketetan. Horrek guztiak bilakatu du «autoritate», Juan Luis Zabala idazle eta kultur kazetariaren hitzetan, eta egindako lan «titaniakoa» aitortu dio Mari Jose Olaziregik ere, EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Literatura Departamentuko irakasle eta Memoria Historikoa Literatura Ibe-

riarretan izeneko ikerketa taldeko zuzendariak.

«Nola egin ahal izan zuen hori guztia berak bakarrik?». Behin eta berriz bueltatu da lehen galdera horretara Olaziregi, Torrealdaiak egindako lanari buruz hizketan jardun ahala. Zentsurari buruzko lanaz ari da nagusiki, baina ez horretaz soilik: «Erabat hankamotz gelditu da zentsuraren gaia. Inork ez daki berak bezainbeste zentsurari eta zentsoreei buruz».

Hori izan zuen doktore tesirako gaia. 1991n defendatatu zuen, Deustuko Unibertsitatean, eta doktore cum laude izendatu zuten. Ezagun zituen zentsoreak lehenago-

**Torrealdaiak zentsuraz egindako ikerketa izan da luzez Euskal Herrian gaiari buruz egindako lan bakarretako bat**

**Elkar fundazioaren eta Euskal Idazleen Elkartearen sorreran egon zen; jarraipena egin dio urterko liburugintzaren alorrari**

tik ere. Frankismo betean, haren artikulu bat debekatu zuten lehenik, eta, gero, erabat debekatu zuten hark zuzentzen zuen *Jakin* aldizkaria argitaratzea ere. Torrealdaiak berak azaldu izan duenez, tranpa moduko bat jarri zuten zentsurak, eta erori egin ziren. «Gu erregimena zabaltzen ari zelakoan jardun ginen bi urtez, artikulu mota horiek publikatu eta publikatu. Eta zer gertatu zen? Bitartean haiek debekatzeko argudio bi-

la ari zirela. Horren erakusletzat, papertxo bat aurkitu nuen Alcalá De Henaresko artxibategian, zera zioena: *'Darles cuerda para que ellos mismos se ahorquen* (utzi soka libre, beren burua urka dezaten)'. Eta, hain zuzen ere, Torrealdai bera jo zuten debeku horien mekanismoak aztertzea izan zuen erronka akademiko nagusietako bat.

Olaziregik eman du lan horren neurria: «Nor bait desagertzen denean, beti azpimarratzen da zeinen langilea zen; ba, ez, Torrealdairen kasuan erabili beharreko neurria benetan makroa da». Unibertsitateko irakaslearen hitzetan, «basatia» izan zen Torrealdaiak doktore tesirako egindako lana. «1986. eta 1990. urteen artean, Alcalá de Henaresko Artxibo Orokorrean sartuta, piztiaren bihotzean, 2.000 espediente aztertuta, eta haietako 1.500 sakon ikertu zituen, eta ikusgarria da, are, bi liburukitan banatuta, tesi horrek hartzen duen bolumena bera ere. Horrelako tesiak ez dira egiten. Hori ez du inork egiten orain. Ezinezkoa da».


Urteekin, publiko zabalari hiru liburutan heldu zaien lan akademiko erraldoi hartan bildutako informazioa. 1998an eman zuen argitara lehena: *La censura de*

**elkar**

*Franco y los escritores vascos del 98. Hurrengo urtean kaleratu zuen bigarrena, La censura de Franco y el tema vascoizzenburuean, eta 2000. urtean heldu zen Artaziak. Euskal Liburuak eta Francoren zentsura (1936-1983) liburua. Edonola ere, tesi osoa argitaratzeko asmoa azaldu du Elkar argitaletxeak.*

Gogoan izatekoa da liburugintzaren arloan sustatzaile rola ere eduki duela Torrealdaiak: Elkar argitaletxea indartzeko egitasmoan parte hartu zuen 1974an –bi urte lehenago eratu zuten Ipar Euskal Herria–, eta Elkar fundazioa sortzeko prozesuan aritu zen 1996an –patronatuan egon da ordutik–. Ez ziren urrats bakarrik izan: EIE Euskal Idazleen Elkarte 1969an eratu zuten, eta Torrealdai izan zen lehenbiziko idazkari nagusia.

Eskuzabaltasuna nabarmendu dio Olaziregik Torrealdairi. Hori, hasteko. Lehenago ere bazuten elkarren berri; hitz eginak ziren, behin baino gehiagotan, baina Olaziregik gidatutako ikerketa taldeko kideek literaturari eta zentsurari buruzko kongresu bat antolatu zuten 2018an, eta Torrealdairi omenaldia egiteko baliatu zuten, gertuko lagunekin eta hari abisurik eman gabe. «Zeharo hunkitu zen», gogoratu du ira-



kasleak. «Urte luzez bakarrik aritu da alor horretan. Zentsurari buruzko ikerketek ez dute jarraipenik izan euskal akademian. Gure ikerketa taldean, 2016an eta 2017an hasi ginen lan horrekin, eta bien artean ez dago ezer».

Eta horregatik haren hunkidura ere omenaldian. «Torrealdaiak gure antolatutako kongresuan esan zuen bezala, zentsura ez zen bukatu Francoren heriotzarekin: zentsuraren aparatua martxan jarraitu zuen 1983ra arte. 1975etik 1983ra arteko tartea ari gara orain ikertzen.

JOAN MARI TORREALDAI [1942-2020]

«Gutziz konbentziturik nago, aurrerantzean ere, hizkuntzaren estatusa edozein delarik eta legeak aldeko izanik ere, hizkuntza komunitateak eutsi beharko diola normalizazioari»



**Kulturgintzan.** Azterlan ugari egin zituen kulturari buruz; irudian, 30 urte liburugintzan lanarekin, 2007an. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Baina haren tesia da guztiaren muina. Lan ikaragarria da».

#### Hutsune instituzional bat

Gehiago ere bada, ordea. Literaturaren soziologia oso modan zegoen garaian, Robert Escarpit ikerlariaren metodo kuantitatiboa aplikatu zion Torrealdai euskal liburugintzari, eta horren emaitza dira 1976an argitaratutako *Euskal Idazleak Gaur* eta handik hogeitaz urtera kaleratutako *Euskal Kultura Gaur* liburukoteak. Bi lan horietan, ikuspegi zientifikotik aztertu zuen euskal liburugintzazertan zen. Kuantitatiboki. Ehunka idazle elkarrizketatu zituen, jo zuen argialetxeengana,

## EUSKAL IDAZLEAK, GAUR

aztertu zuen merkatua, eta, pe-naz, baina etorkizuneko ikerlari-entzat utzi zuen irakurleari buruz egin beharreko ikerketa. Euskal Herriko liburugintzari buruzko azterketa historikoa ere egin zuen, eta temati eutsi zion gaia ikertzeari gerora ere. Hutsik egin gabe aztertzeko, zenbatzen eta in-terpretatzen zituen urte bakoitze-

an izandako euskal publikazio guztiak *Jakin* aldizkarirako.

Eta bueltan berriz Olaziregiren galdera: «Nola egin ahal izan zuen hori dena berak bakarrik?». Eta berriz ere adjektibo bera: «Titani-koa». «Beste herrialdeetan lan hori ministerio baten menpe egoten da, eta atal oso bat egoten da datu horiek batzen eta aztertzen, baina hemen, pertsona bakar batek egiten zuen lan hori, aldizkari baten barruan aztertzeko».

Torrealdaren azterketa horien zehaztasuna laudatu du Juan Luis Zabala idazle eta kultur kazetari-riak ere. Dioenez, «hutsune insti-tuzional bat» salatzen du Torrealdai-aren ekimen hark, eta, horregatik, galdera ikur baten pean ikus-ten du orain etorkizuna. «Egingo al du inork orain Torrealdai egi-ten zuen zerrenda? Orainduko al du orain inork, merezi duen neurrian, lan hori guztia?».

Langile «nekaezina» izan zela dio Zabalak, eta «fidagarritasun handikoa». Haren hitzetan, horrek bilakatu du autoritate, eta horregatik helden da orain haren itzala, baita gertu izan ez zutenen-ganaino ere. «Gazte zela egokitu zitzaion euskara gerraosteko giro ilunetik kulturaren argira zabal-ten hasi zen garaia bizitzea, eta horixe izan du burubide harrezke-ro. Bide horretan guztiak errespe-tatu duten erreferentia izan da, neurri handian berak ere errespe-tu handia erakutsi dielako beti be-rarekin bat ez zetozen; are ikus-pegi politiko batetik etsai zituenei ere. Dotorezia fisikoarekin guztiz bat egindako dotorezia intelek-tuala erakutsi du beti, eta amaie-rara arte eutsi dio horri, guztiz be-rezkoa zuelako. Eta igarri egiten zitzaion; transmititu egiten zuen».

#### Kulturaren proletarioa

Olaziregik dioenez, Torrealdai eskura izan zuen unibertsitete-rra sartzeko aukera, eta ziur da-go lankide «bikaina» izango zela, gainera. Baina ez zuen bide hori hautatu. «Torrealdaren ka-suan, euskal kultura dinamiza-tzeko eta eragiteko egindako lana nabarmendu ohi da, baina arlo akademikoan egindako lana ere aitorzekoa da. Egin zezakeen ka-rrera akademikoa, baina erabaki zuen euskalgintzan eta Jakinekin jarraitzea. Euskal kulturaren lan-giletzat zuen bere burua. Euskal kulturaren proletariotzat. Eta ho-rixe izan zen».



**IRITZIA**  
Joxemari Sors Bagués

Elkar fundazioko lehendakaria

## Elkarrekin taldean lan egiten

**Z**ure hitz berberak era-biliz, ez adiorik, Joan Mari. Zenbat amets eta proiektu partekatu ditugun zurekin Elkar Taldean. Hasiera-hasieratik izan zinen partaide, lehen urteetan sortzaile moduan eta gero gurekin elkar-lanean. Zurea eta gurea ez ezik, Jakinen eta Elkar Taldearen arte-ko harremana beti izan da oso estua, elkar elikatu izan dugula esango nuke, batak bestea aitortu eta errespetatuz. Elkar Taldea Fundazio bihurtu zenean ere beste zenbait ekarpenen artean zureak ere hor izan ziren.

Elkarrekin ikasi dugu taldean lan egiten, taldea sortu eta elika-tzen. Baliaotan oinarritutako tal-dea, Fundazioa, eratzen saiatu gara: euskal hizkuntzan eta kul-turan zentraltasuna jarriz, gizar-tearen zerbitzuko, arlo soziala babestuz, berrinbertsioa gauza-tuz, askatasunetik lan eginez. Balio horiek denak zurekin partekatu izan ditugu, Elkar Talde-an zure engaiamendua handia izan da. Bertako lehendakaria

izan zara, gaur egun lehendaka-riordea zinen, azken ordura arte gurekin lanean jarraitu duzu, nahiz eta ez izan indar handirik. Gogoratzen dugu zen-bateraino arduratua zinen azken bolada honetan bizi dugun egoera larri honetaz, kez-katuta zein ondorio izango dituen euskal kulturarako. Egon lasai, Joan Mari, hartu atsedean, Elkarrek eta Jakinek aurrera egingo dute, beste zenbait proiektu bezala, hitzematzen dizugu; elkarrekin jakin izan dugu taldeak osatzen, jende militante eta profesionalak dauzkagu alboan, ez dute huts egingo. Zure indarra beti izango dugu alboan, gogoan izango ditugu zuk irakatsitakoak.

Joan Mari langile nekegabea zen, berea da esana: «Lana da niretzat osasuna». Azken momentura arte lanean jardun du, Elkarrek asko dio eskertze-ko, Elkarrekin erabateko engaiamendua zeukan, eta Elkar zerbait bada, berari ere zor dio. Mila esker eta ez adiorik.



Kulturaren eginko lanagatik, Dabilen Elea saria eman zitoten 2009an. I. OTEGI/FOKU

«Subsumituta gaude erdal munduan: gure mundua ezezaguna da haientzat. Eta ezagutzen ez dutenez gero, bihurtzen da bigarren mailakoa, interesik gabea...»

[1942-2020] JOAN MARI TORREALDAI



**IRITZIA**  
Mari Karmen Garmendia Lasa

Eusko Jauriaritzako Kultura sailburu ohia



## Bi gezi emankor

**B**adaukat bazterren batean galduta –ez, ordea, oroimenean– argazki bat; elkarrekin gaude Joan Mari Torrealdai eta biok. Andoainen dago aterata argazkia; 1969ko uztailaren hamabikoa izango zen arratsalde hurra: Rikardo Arregiren hiletaren ondoren; Torrealdai, artean frantziskotarra, izan zen meza-emaileetako bat.

Ez daukat gogoan noiz eta non ezagutu nuen Joan Mari, baina badakit Rikardo Arregiren bidez izan zela, *Zeruko Argia*-ko «Gazte naiz» atalean idazten nuenean, 1966. urte inguruan. Ordurako *Jakin*-ek bidea eginda zeukan, *Esprit* aldizkari frantsesaren arrastoan, eta ziklostilean-edo inprimatutako artisau-teknikekin.

Gero, hurrengo hamarkadaren hasieran, etxean ere izan zen behin baino gehiagotan Torrealdai, bileraren bat egiten; esku artean izango genuen –batek daki zehazki zen– alfabetatze kanpaina, edo Euskaltzaindiaren D titulurako ikastaroak, edo Udako Euskal Unibertsitatearen hasiera, edo Elhuyar taldearena. Dena has-

mentan zegoen orduan, betiere euskararen inguruko sorta zabalean.

Joan Mari Torrealdai, gizaseme lerdena eta dotorea, begiak ñir-ñir eta ezpainak irribarre banean. Izan ere, ideia eta jokatubideetan zeukan tinkotasuna maisuki uztartzen zuen jarrera irekiarekin eta hezierarik bikainenarekin. Dotorezia zuen ezagarririk horretan ere. Baita *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieran, poliziak eskuburdinak lotuta, gaizkile gisa, eraman zuenean ere.

Bi gezi gurutzatzen dira Torrealdairen geografia bitalean: bata Arantzazurantz doa, frankismoaren basamortuan euskal munduaren abangoardia artistiko eta intelektualari bidea eta aterpea –eta hauspoa– eman zizkion gurea. Bestea, gure mugetz haratago zuzendua dago, mundu zabalerantz. Eta hor bilatzen ditu Torrealdaik pentsamendua –hitza-zen zentzu orobiltzailean–, pentsamendu garaikidea, euskaraz eta euskaratik lantzeko erreferentziak eta erremintak. Bere ondarea ez da berehalakoan agortuko.

**1 Arantzazun, senideekin.** Torrealdai 1954an sartu zen Arantzazun, 12 urterekin. Hurrengo urtekoa da argazkia: gurasoekin eta arrebarekin. TORREALDAIREN SENDIA

**2 Euskaltzain urgazle.** Euskara batua sortzeko prozesua gertutik jarraitu zuen, eta hurrengo urteetan ere Euskaltzaindiaren inguruan ibili zen. 1975ean urgazle izendatu zuten —argazkian, Xabier Mendigurenekin eta Juanjo Zearretarekin—. TORREALDAIREN SENDIA

**3 Atxiloketa.** *Egunkaria* ixteak, atxiloketak eta torturek arrasto sakona eragin zioten. Irudian, epaile aurrean deklaratu ondoren espetxera, Txema Auzmendiarekin. EITB

**4 Mendia.** Afizio handia zuen; irudian, Mikel Arrizabalagarekin, Cerwinian, Alpeetan. TORREALDAIREN SENDIA

**5 Euskaltzain.** 2009an egin zuen Euskaltzaindiko sarrera hitzaldia, Foruan; irudian, emaztearekin eta seme-alabekin. TORREALDAIREN SENDIA



EIDER EIBAR




JOAN MARI  
TORREALDAI [1942  
2020]

«Euskal Herria ulertzeko modu bat zor diot Arantzazuri: Euskal Herria osorik ulertzeko modu bat, txokokerien ginetik. Biologikoki Foruan jaio nintzen; kulturalki, Arantzazun»



**IRITZIA**  
Laura Mintegi  
Idazlea



## Adiorik ez

**E**ntzun nahi ez nuen albistea jaso dut, Joan Mari. Enoratu nahi duguna, ordea, ez da desagertzen enoratze hutsagatik. Irakasgai hori erakutsi zenidan aspaldi.

Mahai-ingurua partekatzen ari ginen *Zentsura At! Censorship Festival*-ean 2010ean. Zentsurak eragiten duen kalte politikoaz, sozialaz eta pertsonalaz ari ginen, eta laguna nuen Stein Torger kazetari norvegiarrak esan zidan elkarrizketa egin nahi zizula. Zuri galdetu eta baietz, baina ingelesez nekez, eta interprete lana egiteko. Nola ez.

2003an izandako *Egunkaria*-ren itxieraz galdetu zizun, luze eta zabal, eta poliziak eman zizun tratua. Martxelo Otamen-

diren eta Iñaki Uriaren testigantzak aipatu zituen kazetariak. Eta orduan hasi zinen deskribatzen, bare eta pausatu, zeu ere torturatu zintuztela. Kazetari hari azaldu zeniona ez nuen entzunda aurretik, zer egin zizuten eta nola sentitu zinen. Testigantza berri hura ingeleseratu ahala, eztarrian korapilatu zitzaidan, hitzekin batera, zure begietan ikusi nuen begirada. Hain hauskor, hain babesgabe, hain zaurgarri ikusi zintudan une hartan. Ezin ahaztu. Elkarrizketa amaitutakoan aurrez aurre gelditu ginen isilik. Zer esan. Ez dago hitzik. Eta zeuk, irribarre tristeaz esan zenidan liberazioa sentitzen zenuela. Denbora behar izan zenuela zeure buruari aitortzeko egia


maltzurra, maltzurregia egia izateko.

Bost urte beranduago aitortu zenidan, zenigun, oinaze ezkutu horrek eragin zizula min anker eta bizia, hezurretaraino sartu zitzaizun min bizia.

Maite zaitugu, Joan Mari. Mirresmena, errespetua, konplizitate, elkar-elikatzeko intelektuala. Ez dut ahaztuko nola etorri zinen 1987an Txagorritxura, premiazko ebakuntzaren ondoren hila-beteko egonaldia eman nuenean ospitalean. *Emakumea eta Literaturara* monografikoan parte hartzeko konbentzitu nahi ninduzun. Nola esan ezetz. *Jakin*-eko maskulinitate omnipresentea eta misoginia zantzuak urte-tan kritikatu eta gero, ezin nuen basterik egin. 2014an erreleboa aurkeztu zenutenean, ordea, «ikusi duzu», esan zenidan, «emakume bat *Jakin*-eko zuzendari». «Eta nolako emakumea», esan nizun nik, «Lorea Agirre, *floriturbo*», ia-ia nerabea zela jarri genion ezizena. «Orain ezin leporatu misoginiarik, e, Laura?», esan zenidan irribarretsu, ziria sartu nahian.

Irribarre alai eta maltzur hori da beti gogoan izango dudana.

**IRITZIA**  
Miren Josune Ariztondo Akarregi



## jmt

**J**oan Mari laguna joan zai-gu. Aspaldiko lagun ona, adeitasunez entzun eta egoki erantzuten saiatua, gainontzekoen iritzien errespetu osoan berea maisuki azaltzeaz gain ezjakinari ere begirunez zuzentzen zitzaiona. Berarekin batera joan zaizkigu hitz-aspertu eta eztabaida aberats eta aberasgarriarako aukera eder batzuk. Hori eta askoz gehiago.

Duela 25 urte hasi eta gaurdaino asko ikasi izan dut Joan Mariren ikuspegi anitzeko jarreretatik: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari egin zizkion ekarpen bikainak sarritan irakurri eta gogoan hartu izan ditut; *Euskaldunon Egunkaria*-ren egoera eta

etorkizunari buruzko eztabaidetan norbanakoenganako errespetua eztabaiden gordinetik salbuesteko zuen dotorezia aparte-ko lezioa izan da niretzat; *Egunkaria*-ren itxierarekin baterako atxiloketa eta osteko tortura gaiztoen berri emateko ordu latzean agertu izan zuen gizatasuna ere bere gogorrean –egoera halakoxea baitzen– ahaztezina zait; harrezkero, zeharka edota zuzenean egin zitzaizkion babes-eskaintzak aztertu izan zituenean ere, bere barne-askatasuna lehenezte erabaki izan zuen, askatasun horixe baitzen beretzat beste gauzen gainetik jagon beharreko ondasuna, duintasunaren oinarri eta euskarri gisa ulertuta.

Hainbat gara Joan Mariren hutsuneak harrapatu gaituen adiskideak. Hainbat, euskal intelektual handi honekin zorretan garenak. Joan Mari Torrealda Nabea XX. eta XXI. mendeak hartzen dituen azken 50 urteetako euskal intelektual handienetakoa dugu. Euskal gizarteak, euskal unibertsoko komunitateak eta erakundeek halaxe aitortu diote: Lauaxeta eta Manuel Lekuona sariak eta Gipuzkoako Urrezko Domina ongi merezi izanda jasoak dira.

Langile fina izanik, oparoa izan da idazlanetan; hainbat ikerketa eta saio eskaini dizkigu, EUSKAL izenburua dutenak denak. Soziologia, diglosia, historia edota pedagogia izanik lan arloak, intelektual handieki dagokien sakontasuna eta perspektiba anitza izan ditu *etxeko markak*. Altxor bikaina jaso dugu. Jagotea eta, ahal dugun neurrian, zabaltzea dagokigu.

Handia da joan zaiguna. Zorionez, bere ondarea daukagu, kultura eta gizatiar ondare fina. Zorteko gara. Eskerrik asko, Joan Mari laguna. Adiorik ez!

«Herri ekimenak ikaragarri dezake, kudeaketa on batekin. Daukagun hoberentxoena herri ekimenari, hizkuntza komunitate aktibo eta konprometituari, zor diogulakoan nago»

[1942-2020] JOAN MARI TORREALDAI

JOAN MARI  
TORREALDAI

1942  
2020

**BERRIA**  
Larunbata,  
2020ko abuztuaren 1a



Xabier Egaña artistak  
espresuki BERRIArentzat egina.

**...Joan Mari Torrealdai, beti adi eta kritiko egiten ari garen bideari,  
geure obrarekin inoiz maitemindu eta itsutu gabe.**

**Joxe Azurmendi**